

ADMINISTRARIA

GALDERAK

- 1.- **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, enplegatu publikoak dira:**
 - a) Administrazio publikoetan ordaindu gabeko zereginak betetzen dituztenak, interes orokorren zerbitzura.
 - b) Administrazio publikoetan zeregin ordainduak betetzen dituztenak, interes partikularren zerbitzura.
 - c) Administrazio publikoetan zeregin ordainduak betetzen dituztenak, interes orokorren zerbitzura.
 - d) Administrazio publikoetan ordaindu gabeko zereginak betetzen dituztenak, interes partikularren zerbitzura.

- 2.- **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, bitarteko funtzionarioak dira, hauetako bat gertatzen denean:**
 - a) Titularrak aldi baterako ordezteak, behar-beharrezkoa den denboran.
 - b) Aldi baterako programak betetzeko denean; programa horiek ezin izango dute urtebetetik gorako iraupena izan, eta beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango dira, estatutu hau garatzeko ematen diren Funtzio Publikoko legeen bidez.
 - c) Zeregin kopuru handiegia edo zeregin-pilaketa dagoenean; gehienez ere bederatzi hileko epe baterako izango da, 3 urteko tarte batean.
 - d) a), b) eta c) zuzenak dira.

- 3.- **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, Administrazioak ofizioz formalizatuko du bitarteko-harremanaren amaiera, 63. artikuluan jasotako arrazoiren bat dagoenean ez ezik, honako kasu hauetan, konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik gabe:**
 - a) Lanpostua karrerako funtzionarioek araututa betetzeagatik, lege ezarritako edozein prozeduraren bidez.
 - b) Esleitutako lanpostuak kentzea edo amortizatzea eragiten duten antolaketa-arrazoiengatik.
 - c) Izendapena eragin zuen arrazoia indarrik gabe geratutakoan.
 - d) a), b) eta c) zuzenak dira.



4.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, langile lan-kontratudunak dira:

- a) Lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatzeke edozein modalitate erabilita, idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindu gabeko zerbitzuak ematen dituztenak.
- b) Lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatzeke edozein modalitate erabilita, idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindutako zerbitzuak ematen dituztenak.
- c) Lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatzeke edozein modalitate erabilita, ahoz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindutako zerbitzuak ematen dituztenak.
- d) Lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatzeke edozein modalitate erabilita, idatziz edo ahoz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindu gabeko zerbitzuak ematen dituztenak.

5.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, behin-behineko langileak dira:

- a) Izendapen baten bidez eta iraupen ez iraunkorrez, espresuki konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzten eta beren ordainsaria xede horretara bideratutako aurrekontu-kredituen kontura jasotzen duten langileak.
- b) Izendapen baten bidez eta iraupen iraunkorrez, espresuki konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzten eta beren ordainsaria xede horretara bideratutako aurrekontu-kredituen kontura jasotzen duten langileak.
- c) Izendapen baten bidez eta iraupen iraunkorrez, konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen ez diren eginkizun batzuk betetzen dituzten eta beren ordainsaria xede horretara bideratutako aurrekontu-kredituen kontura jasotzen duten langileak.
- d) a), b) eta c) okerrak dira.

6.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, honela definitzen da Osakidetza ente publikoa:

- a) Zuzenbide publikoko ente publikoa. Bere helburua osasun-zerbitzuak ematea da, bere menpe dauzkan erakunde publikoen bitartez.
- b) Zuzenbide publikoko ente publikoa. Bere helburua osasun-zerbitzuak ematea da, bere menpe dauzkan erakunde pribatuen bitartez.
- c) Zuzenbide pribatuko ente publikoa. Bere helburua osasun-zerbitzuak ematea da, bere menpe dauzkan erakunde publikoen bitartez.
- d) Zuzenbide pribatuko ente publikoa. Bere helburua osasun-zerbitzuak ematea da, bere menpe dauzkan erakunde pribatuen bitartez.



7.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, Osakidetza ente publikoaren xedeen barruan hauxe zehazten da:

- a) Osakidetzaren zerbitzuen erabiltzaileei beren eskubide eta eginbeharrak erabat betetzeko behar dituzten baldintzak eskainiko zaizkie, zerbitzuaren kalitatea kontuan hartu gabe.
- b) Osakidetzaren zerbitzuen erabiltzaileei beren eskubide eta eginbeharrak erabat betetzeko behar dituzten baldintzak eskainiko zaizkie; batez ere informazioa etengabe hobetuko da, arreta hori pertsonalizatua ez bada.
- c) Osakidetzaren zerbitzuen erabiltzaileei beren eskubide eta eginbeharrak erabat betetzeko behar dituzten baldintzak eskainiko zaizkie; batez ere informazioa etengabe hobetuko da, eta atentzioa pertsonalizatuagoa eta kalitate handiagokoa izan dadin ahalegina egingo da.
- d) a), b) eta c) okerrak dira.

8.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, Osakidetza ente publikoaren xedea EZ da:

- a) Osasun-zientzietan irakaskuntza sustatzea.
- b) Enteko langile sanitarioen ezaguera eguneratzea eta prestakuntza sustatzea.
- c) Enteko langile ez sanitarioen ezaguera eguneratzea eta prestakuntza sustatzea.
- d) Enpresa pribatuen sorrera bultzatzea.

9.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, zuzendaritzaren barruan daude:

- a) Lehendakaria eta Administrazio Kontseilua.
- b) Zentroko zuzendaria eta Administrazio Kontseilua.
- c) Zuzendaritza eta Enpresa Batzordea.
- d) a), b) eta c) zuzenak dira.

10.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, ente publikoko lehendakaria hauxe izango da:

- a) Jaurlaritzako lehendakaria.
- b) Osasun sailburua.
- c) Kutxa Fundazioa.
- d) Gobernuako presidentea.



- 11.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, lehendakariaren eginkizun hauetatik, zein da OKERRA?**
- a) Ente Publikoaren ordezkari itza eramatea.
 - b) Ente Publikoaren eragiketak berraztertzea, eta egokitza jotako txostenak Administrazio Kontseiluari aurkeztea.
 - c) Administrazio Kontseiluaren ordezkari itza eramatea.
 - d) Ez dauka eskumenik Ente Publikoaren eragiketak berraztertzeko.
- 12.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, Administrazio Kontseiluak ardura dauka:**
- a) Beste enpresa batzuei aholkularitza emateko.
 - b) Prestakuntza eta informazioa emateko.
 - c) Komunikazioa eta sare sozialak zuzentzeko.
 - d) Enterean ekintzak zuzentzeko eta kontrolatzeko.
- 13.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, Administrazio Kontseiluan hauek egongo dira:**
- a) Autonomia Erkidegoko Administrazioiko sei ordezkari.
 - b) Autonomia Erkidegoko Administrazioiko zortzi ordezkari.
 - c) Ente publikoko lehendakariaz gain, Autonomia Erkidegoko Administrazioiko bost ordezkari.
 - d) Ente publikoko lehendakaria eta Jaurlaritzako lehendakaria.
- 14.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, ente publikoko lehendakariari dagokio:**
- a) Administrazio Kontseiluaren bileretan deialdiak egitea, mahaiburu izatea, saioak bertan behera utzi eta amaitzea.
 - b) Administrazio Kontseiluaren eztabaidak bideratzea.
 - c) Administrazio Kontseiluaren bileretan berdinketa gertatuz gero, boto ebazlea ematea.
 - d) a), b) eta c) zuzenak dira.



15.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, Administrazio Kontseiluak honako eginkizun hauek ditu:

- a) Ente publikoaren eta bere erakunde guztien irizpideak eta ekiteko ildoak onartzea, lehendakariaren proposamenez.
- b) Ente publikoaren aurrekontuak, finantzen aurretiazko egoera-orriak eta jardueren urteko txostena biltzen dituen proposamena onartzea.
- c) Ente publikoaren Plan Estrategikoa onartzea, zuzendari nagusiaren proposamenez.
- d) a), b) eta c) zuzenak dira.

16.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, zuzendari nagusiaren eginkizunen artean EZ da sartzen:

- a) Ente publikoko zerbitzu guztien eta langileriaren zuzendaritza eramatea.
- b) Administrazio Kontseiluetan, berdinketa gertatuz gero, boto ebazlea ematea.
- c) Administrazio Kontseiluaren akordioak betearaztea.
- d) Ente publikoko zerbitzu-erakundeetako zuzendari-kudeatzaileak izendatzea eta kargutik kentzea.

17.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, administrazioko eta korporazio-kudeaketako antolakunde orokorrak honako eginkizun hauek ditu bere esku:

- a) Jaurlaritzaren arauekin bat, ordezkaritza, komunikazio eta itxura ofizialari buruzko arau orokorrak ezartzea.
- b) Ente publikoaren plan estrategikoa prestatzea.
- c) Aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuak ematea.
- d) a), b) eta c) zuzenak dira.

18.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, antolakunde orokorrari ez dagokio, giza baliabideen kudeaketaren arloan:

- a) Langileria-erregistroa eramatea.
- b) Ente publikoaren plan estrategikoa prestatzea.
- c) Enteko langileriari buruzko politikak begiratu, kontrolatu eta ebaluatzea.
- d) Hautatzeko eta betetzeko prozesuak kudeatzea.



19.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, zerbitzu-erakundeen ahalmenei buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

- a) Osakidetza Ente Publikoko zerbitzu-erakunde bakoitzak bere egin dituen osasun-zerbitzuak emateko behar diren kudeaketa zein administrazioko ahalmenak izango ditu; salbuespen gisa aipa daitezke kudeaketa zentralizatuko ahalmenak, estatutu hauetan berariaz aitortzen baitzaizkio ente publikoko antolakunde orokorrari.
- b) EZ da Osakidetza Ente Publikoko zerbitzu-erakunde bakoitzaren erantzukizuna bere egin dituen osasun-zerbitzuak emateko behar diren kudeaketa zein administrazioko ahalmenak gauzatzea; salbuespen gisa aipa daitezke kudeaketa zentralizatuko ahalmenak, estatutu hauetan berariaz aitortzen baitzaizkio ente publikoko antolakunde orokorrari.
- c) Osakidetza Ente Publikoko zerbitzu-erakunde berezi batzuen erantzukizuna da, eta SOILIK horiena, bere egin dituzten osasun-zerbitzuak emateko behar diren kudeaketa zein administrazioko ahalmenak gauzatzea; salbuespen gisa aipa daitezke kudeaketa zentralizatuko ahalmenak, estatutu hauetan berariaz aitortzen baitzaizkio ente publikoko antolakunde orokorrari.
- d) Osakidetza Ente Publikoko zerbitzu-erakunde bakoitzak bere egin dituen osasun-zerbitzuak emateko behar diren kudeaketa zein administrazioko ahalmenak izango ditu, eta horren barruan aipa daitezke kudeaketa zentralizatuko ahalmenak, estatutu hauetan berariaz aitortzen baitzaizkio ente publikoko antolakunde orokorrari.

20.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, ente publiko zerbitzu-erakundeetan _____ bana egongo da:

- a) Lehendakari.
- b) Zuzendari-kudeatzaile.
- c) Administrazio Kontseilu.
- d) Giza Baliabideen arduradun.

21.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, baieztapen hauetatik, zein da FALTSUA? Zuzendari-kudeatzailearen eginkizunak dira:

- a) Erakundearen ordezkari ofiziala eramatea, eta erakundearen buru aritzea.
- b) Bere erakundearen ikerketa, irakaskuntza eta prestakuntza zuzendu eta bultzatzea.
- c) Kasuan-kasuko erakundearen ordezkariaren kontratu-programa izenpetzea.
- d) Unibertsitate eta lanbide-heziketako zentro pribatuaren ikerketa, irakaskuntza eta prestakuntza zuzendu eta bultzatzea.



22.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, Zuzendaritza Medikoari hurrengo eginkizun hauek dagozkie eskuarki:

- a) Kudeaketa administratiboko jarduerak zuzendu, koordinatu eta ebaluatzea.
- b) Zuzendaritza Nagusiaren jarduerak zuzendu, koordinatu eta ebaluatzea.
- c) Profesionalek parte hartzeko batzorde teknikoak zuzentzea, eta horien funtzionamendua bultzatzea.
- d) Giza baliabideen kudeaketa zuzendu, koordinatu eta ebaluatzea.

23.- Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

- a) Osakidetza Ente Publikoa osatzen duten erakundeek ez dute ekonomi-finantzako informazioa eramango, osasun-laguntzako enpresetara egokituriko Kontabilitate Plan Orokorren irizpideen arabera.
- b) Osakidetza Ente Publikoak eta menpeko erakundeetariko bakoitzak ekonomi-finantzako informazioa eramango du, zeinek berea, baina ez osasun-laguntzako enpresetara egokituriko Kontabilitate Plan Orokorren irizpideen arabera.
- c) Osakidetza Ente Publikoak eta menpeko erakundeetariko bakoitzak ekonomi-finantzako informazioa eramango du, zeinek berea, osasun-laguntzako enpresetara egokituriko Kontabilitate Plan Orokorren irizpideen arabera. Ekonomi-finantzako informazioa lotuko zaio, orobat, zuzenbide pribatuko ente publikoetarako ezarrita dauden kontrol eta kontabilitateko arauak.
- d) a), b) eta c) okerrak dira.

24.- Osakidetza Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera, lanpostu funtzionalak:

- a) Sailkapen-lanabesak dira langileen antolamendua, sustapena eta garapen integrala lortzeko.
- b) Sailkapen-lanabesak dira langileei prestakuntza emateko.
- c) Sailkapen-lanabesak dira, beren ezagutza informatikoen araberakoak.
- d) Sailkapen-lanabesak dira erretiroak eta erreleboak kudeatzeko.

25.- Osakidetza Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera, hau jotzen da lanpostu funtzionaltzat:

- a) Bost eremu funtzionali dagokienez elementu komun bat duten postuen taldea; entitate publikoaren egituran dagoen beste edozein taldetik bereizita dago, lanpostuan aritzeko lanbide-eskakizunei dagokienez edo hartzen dituzten erantzukizun hierarkiko edota kudeaketa-erantzukizunei dagokienez.
- b) Eremu funtzional bat edo gehiagori dagokionez elementu komun bat duten postuen taldea; entitate publikoaren egituran dagoen beste edozein taldetik bereizita dago, lanpostuan aritzeko lanbide-eskakizunei dagokienez edo hartzen dituzten erantzukizun hierarkiko edota kudeaketa-erantzukizunei dagokienez.



- c) Eremu funtzional bat edo gehiagori dagokionez elementu komun bat duten postuen taldea; ez dago bereizita entitate publikoaren egituran dagoen beste edozein taldetik, lanpostuan aritzeko lanbide-eskakizunei dagokienez edo hartzen dituzten erantzukizun hierarkiko edota kudeaketa-erantzukizunei dagokienez.
- d) Eremu funtzionalei dagokienez elementu komun bat duten postuen taldea; ez dago bereizita entitate publikoaren egituran dagoen beste edozein taldetik, lanpostuan aritzeko lanbide-eskakizunei dagokienez edo hartzen dituzten erantzukizun hierarkiko edota kudeaketa-erantzukizunei dagokienez.

26.- Osakidetza Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera, lanpostu funtzionalak alderdi hauen arabera identifikatuko dira:

- a) Jatorria.
- b) Adina.
- c) Eskatzen den lanbide-profila.
- d) a), b) eta c) zuzenak dira.

27.- Osakidetza Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera, izendatutako ordainketa-ondorioak:

- a) Lanpostu funtzionalak identifikatzeko alderdietako bat dira.
- b) Kasu jakin batzuetan lanpostu funtzionalak identifikatzeko alderdietako bat dira.
- c) Ez dira lanpostu funtzionalak identifikatzeko alderdietako bat.
- d) a), b) eta c) okerrak dira.

28.- Osakidetza Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera, adina:

- a) Lanpostu funtzionalak identifikatzeko alderdietako bat da.
- b) Gipuzkoan lanpostu funtzionalak identifikatzeko alderdietako bat da.
- c) Bizkaian lanpostu funtzionalak identifikatzeko alderdietako bat da.
- d) a), b) eta c) okerrak dira.

29.- Osakidetza Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera, lanerako eskatzen den lanbide-profilaren osagaiak honako hauek dira:

- a) Titulazioa edo titulazioak, gida-baimena eta hizkuntza-eskakizuna.
- b) Titulazioa edo titulazioak, esperientzia eta jaiotze-data.
- c) Titulazioa edo titulazioak, esperientzia eta hizkuntza-eskakizuna.
- d) Titulazioa edo titulazioak, jatorria eta hizkuntza-eskakizuna.



30.- Osakidetza Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera:

- a) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen Saileko arduradunak arautuko du lanpostuak betetzeko sistema, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko Legean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan finkatutako printzipio orokorrekin bat etorritz.
- b) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak arautuko du lanpostuak betetzeko sistema, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko Legean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan finkatutako printzipio orokorrekin bat etorritz.
- c) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Medikuen Batzordeak arautuko du lanpostuak betetzeko sistema, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko Legean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan finkatutako printzipio orokorrekin bat etorritz.
- d) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko sindikatuak arautuko du lanpostuak betetzeko sistema, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko Legean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan finkatutako printzipio orokorrekin bat etorritz.

31.- Osakidetza Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera:

- a) Administrazio Kontseiluak Erakunderako onartutako egiturazko plantillak mugatuko du plantilla funtzionalen postu kopurua. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua entitate publikoa osatzen duten zerbitzu-erakunde guztietan lanbide-taldeen arabera dauden postuek osatzen dute egiturazko plantilla.
- b) Administrazio Kontseiluak Erakunderako onartutako egiturazko plantillak mugatuko du plantilla funtzionalen postu kopurua. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua entitate publikoa osatzen duten zerbitzu-erakunde guztietan lanbide-taldeen arabera dauden postu jakin batzuek osatzen dute egiturazko plantilla.
- c) Administrazio Kontseiluak Erakunderako onartutako egiturazko plantillak mugatuko du plantilla funtzionalen postu kopurua. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua entitate publikoa osatzen duten zerbitzu-erakunde guztietan lanbide-taldeen arabera dauden postuen % 25ek osatzen dute egiturazko plantilla.
- d) Administrazio Kontseiluak Erakunderako onartutako egiturazko plantillak mugatuko du plantilla funtzionalen postu kopurua. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua entitate publikoa osatzen duten zerbitzu-erakunde guztietan lanbide-taldeen arabera dauden postuen % 50ek osatzen dute egiturazko plantilla.

32.- Osakidetza Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera:

- a) Zerbitzu-erakundeetako plantilla funtzionaletan sartutako postuak ezin daitezke aldatu lekualdatze, amortizazio eta plantilla funtzional horietako postuak sortzearen ondorioz.
- b) Zerbitzu-erakundeetako plantilla funtzionaletan sartutako postuen % 25 aldatu egin daitezke lekualdatze, amortizazio eta plantilla funtzional horietako postuak sortzearen ondorioz.



- c) Zerbitzu-erakundeetako plantilla funtzionaletan sartutako postuen % 50 aldatu egin daitezke lekualdatze, amortizazio eta plantilla funtzional horietako postuak sortzearen ondorioz.
- d) Zerbitzu-erakundeetako plantilla funtzionaletan sartutako postuak aldatu egin daitezke lekualdatze, amortizazio eta plantilla funtzional horietako postuak sortzearen ondorioz.

33.- Osakidetza Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera:

- a) Zerbitzu-erakundeetako postuak lekuz aldatu daitezke zerbitzu horien artean, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.
- b) Zerbitzu-erakundeetako postuak ezin dira lekuz aldatu zerbitzu horien artean, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.
- c) Zerbitzu-erakundeetako postuak lekuz aldatu daitezke soilik erakunde beraren barruan, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.
- d) a), b) eta c) okerrak dira.

34.- Osakidetza Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera:

- a) Plantilla funtzionalean aldaketak egiten badira eta horien ondorioz zerbitzu-erakundeoko egiturazko plantillan ezer aldatzen ez bada, erakundeoko zuzendari-gerenteak onartu beharko du ebazpen baten bidez.
- b) Plantilla funtzionalean aldaketak egiten badira eta horien ondorioz zerbitzu-erakundeoko egiturazko plantillan ezer aldatzen ez bada, Administrazio Kontseiluak onartu beharko du ebazpen baten bidez.
- c) Plantilla funtzionalean aldaketak egiten badira eta horien ondorioz zerbitzu-erakundeoko egiturazko plantillan ezer aldatzen ez bada, Zuzendaritza Medikoak onartu beharko du ebazpen baten bidez.
- d) a), b) eta c) okerrak dira.

35.- Osakidetza Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera:

- a) Plantilla funtzionalean aldaketak egiten badira eta horien ondorioz zerbitzu-erakundeoko egiturazko plantilla aldatzen bada, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari-kudeatzaileak aztertu eta onartu beharko du. Eta Entitate Publikorako lanbide-taldearen arabera ezarritako gehienezko postu-kopurua aldatzen bada, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu beharrekoa izango da.
- b) Plantilla funtzionalean aldaketak egiten badira eta horien ondorioz zerbitzu-erakundeoko egiturazko plantilla aldatzen bada, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak aztertu eta onartu beharko du. Eta Entitate Publikorako lanbide-taldearen arabera ezarritako gehienezko postu-kopurua aldatzen ez bada, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu beharrekoa izango da.
- c) Plantilla funtzionalean aldaketak egiten badira eta horien ondorioz zerbitzu-erakundeoko egiturazko plantilla aldatzen bada, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak aztertu eta onartu beharko du. Eta Entitate



Publikorako lanbide-taldeen arabera ezarritako gehienezko postu-kopurua aldatzen bada, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu beharrekoa izango da.

d) a), b) eta c) okerrak dira.

36.- Osakidetza Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera:

a) Ez da nahitaezkoa plantillako aldaketen berri ematea aldatutako lanpostuan jarduten duten langileei.

b) Plantillako aldaketen berri eman beharko zaie aldatutako lanpostuan jarduten duten langileei.

c) Plantillako aldaketen berri eman beharko zaie, kasu batzuetan, aldatutako lanpostuan jarduten duten langileei.

d) a), b) eta c) okerrak dira.

37.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, xedeak dira:

a) Jarduera publikoaren gardentasuna zabaldu eta indartzea.

b) Jarduera horri buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautu eta bermatzea.

c) Arduradun publikoek bete beharreko gobernu onaren betebeharrak ezartzea eta horiek ez betetzearen ondoriozko ondorioak ezartzea.

d) a), b) eta c) zuzenak dira.

38.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, jarduera publikoaren gardentasunaren aplikazio-eremuan sartzen dira:

a) Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako eta Ceutako Hiriko eta Melillako Hiriko administrazioak eta toki-administrazioak erakundeak.

b) Soilik Gipuzkoako Administrazioa eta Donostiako Udala.

c) Autonomia-erkidegoetako administrazioak, salbu Ceutako eta Melillako Hiriak eta Donostiako Udala.

d) Soilik EAEko administrazioak, eta Toki Administrazioa osatzen duten entitateak.

39.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, jarduera publikoaren gardentasunaren aplikazio-eremuan sartzen dira:

a) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu ez-komunak.

b) Gizarte Segurantzarekin lankidetzan jarduten ez diren lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen mutuak.

c) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu komunak; Gizarte Segurantzarekin lankidetzan jarduten diren lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen mutuak.

d) a), b) eta c) okerrak dira.



40.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, jarduera publikoaren gardentasunaren aplikazio-eremuan sartzen dira:

- a) Independentzia funtzionala edo legeak aitortutako autonomia berezia duten erakunde autonomo eta estatu-agentziak, sektore edo jarduera jakin baten gaineko kanpo erregulazio- edo gainbegiratze-funtzioak esleituta badituzte.
- b) Independentzia funtzionala edo legeak aitortutako autonomia berezia duten enpresa-erakunde publikoak, sektore edo jarduera jakin baten gaineko kanpo erregulazio- edo gainbegiratze-funtzioak esleituta badituzte.
- c) Independentzia funtzionala edo legeak aitortutako autonomia berezia duten zuzenbide publikoko erakundeak, sektore edo jarduera jakin baten gaineko kanpo erregulazio- edo gainbegiratze-funtzioak esleituta badituzte.
- d) a), b) eta c) zuzenak dira.

41.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, jarduera publikoaren gardentasunaren aplikazio-eremuan sartzen dira:

- a) Izaera juridiko propioa duten eta edozein administrazio publikori edo horien mendekoei –unibertsitate publikoak barne– lotuta ez dauden zuzenbide publikoko erakundeak.
- b) Izaera juridiko propioa duten eta edozein administrazio publikori edo horien mendekoei –unibertsitate publikoak barne– lotutako zuzenbide publikoko erakundeak.
- c) Izaera juridiko propioa duten eta edozein administrazio publikori edo horien mendekoei –unibertsitate pribatuak barne– lotuta ez dauden zuzenbide publikoko erakundeak.
- d) Izaera juridiko propioa duten eta edozein administrazio publikori edo horien mendekoei –unibertsitate pribatuak barne– lotutako zuzenbide publikoko erakundeak.

42.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, jarduera publikoaren gardentasunaren aplikazio-eremuan sartzen dira:

- a) Errege Etxea.
- b) Espainiako Bankua.
- c) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.
- d) a), b) eta c) zuzenak dira.



43.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, jarduera publikoaren gardentasunaren aplikazio-eremuan sartzen dira:

- a) Merkataritza-sozietateak, artikuluko honetako entitateek 100eko 50eko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialean.
- b) Merkataritza-sozietateak, artikuluko honetako entitateek 100eko 50eko baino gutxiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialean.
- c) Merkataritza-sozietateak, artikuluko honetako entitateek 100eko 25eko baino gehiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialean.
- d) a), b) eta c) okerrak dira.

44.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, obligaziodunak izango dira:

- a) Erakunde sindikalak.
- b) Enpresaburu-erakundeak.
- c) Paziente eta senideen elkarteak.
- d) a) eta b) zuzenak dira.

45.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, obligaziodunak izango dira:

- a) Urtebetez 100.000 euro baino gehiagoko laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuak, edo urteko sarreraren % 40 –5.000 euroko minimoarekin–, gutxienez, laguntza edo diru-laguntza publikoetatik eskuratzen duten erakunde pribatuak.
- b) Urtebetez 35.000 euro baino gehiagoko laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuak, edo urteko sarreraren % 30 –10.000 euroko minimoarekin–, gutxienez, laguntza edo diru-laguntza publikoetatik eskuratzen duten erakunde pribatuak.
- c) Urtebetez 55.000 euro baino gehiagoko laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuak, edo urteko sarreraren % 20 –25.000 euroko minimoarekin–, gutxienez, laguntza edo diru-laguntza publikoetatik eskuratzen duten erakunde pribatuak.
- d) Urtebetez 45.000 euro baino gehiagoko laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuak, edo urteko sarreraren % 10 –15.000 euroko minimoarekin–, gutxienez, laguntza edo diru-laguntza publikoetatik eskuratzen duten erakunde pribatuak.

46.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera:

- a) Gardentasun-betebeharren mendeko informazioa dagozkion egoitza elektronikoa edo web-orrietan argitaratuko da, interesdunek zailtasunez ulertzeko moduan eta, ahal bada, berriz erabiltzeko moduko formatuetan.



- b) Gardentasun-betebeharren mendeko informazioa dagozkion egoitza elektronikoa edo web-orrietan argitaratuko da, argi, era antolatuan eta interesdunek ulertzeko moduan eta, ahal bada, berriz erabiltzeko moduko formatuetan.
- c) Gardentasun-betebeharren mendeko informazioa dagozkion egoitza elektronikoa edo web-orrietan argitaratuko da, argi, era antolatuan eta interesdunek ulertzeko moduan eta, ahal bada, berriz erabili ezin diren formatuetan.
- d) a), b) eta c) okerrak dira.

47.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera:

- a) Informazio guztia ulergarria, erraz eskuratzeko modukoa eta kostu txikikoa izango da, eta desgaituentzat eskuragarri egongo da bitarteko edo formatu egokien bidez, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezen, irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren printzipioari jarraiki.
- b) Informazio guztia ulergarria, erraz eskuratzeko modukoa eta kostu txikikoa izango da, eta desgaituentzat eskuragarri egongo da bitarteko edo formatu egokien bidez, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezen.
- c) Informazio guztia ulergarria, erraz eskuratzeko modukoa eta doakoa izango da, eta desgaituentzat eskuragarri egongo da bitarteko edo formatu egokien bidez, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezen, irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren printzipioari jarraiki.
- d) Informazio guztia ulergarria, erraz eskuratzeko modukoa eta doakoa izango da, eta desgaituentzat eskuragarri egongo da, irisgarritasuna eta ulermena zailtzen dituen modalitatean.

48.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera:

- a) Betetzen dituzten funtzioei, aplikatu beharreko araudiari eta antolamendu-egiturari buruzko informazioa argitaratu behar dute aplikazio-eremuan aipatzen diren subjektuek.
- b) Organoetako arduradunak jasotzen dituen organigrama eguneratua argitaratu behar dute aplikazio-eremuan aipatzen diren subjektuek.
- c) Haien profila eta ibilbide profesionala jasotzen dituen organigrama eguneratua argitaratu behar dute aplikazio-eremuan aipatzen diren subjektuek.
- d) a), b) eta c) zuzenak dira.

49.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera:

- a) Administrazio publikoen betetze-maila eta emaitzak aldizka ebaluatu eta argitaratu beharko dira administrazio eskudunak zehaztutako eran, neurketa eta balorazioko adierazleekin batera.
- b) Administrazio publikoen betetze-maila eta emaitzak ebaluatu egin beharko dira, baina ez dira aldizka argitaratuko.
- c) Administrazio publikoek ez dituzte argitaratuko helburu zehatzak finkatzen dituzten urteko eta urte anitzeko plan eta programak.



- d) Administrazio publikoen betetze-maila eta emaitzak aldizka ebaluatu eta argitaratu beharko dira administrazio eskudunak zehaztutako eran, baina neurketa eta balorazioko adierazleak erantsi gabe.

50.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, herri-administrazioek, beren eskumenen barruan, honako hauek argitaratuko dituzte:

- a) Indarreko legeria sektorialaren arabera izapidetzean jendaurrean jarri behar diren dokumentuak.
- b) Jarraibideak, instrukzioak, erabakiak, zirkularrak edo partikularrek edo beste organo batzuek egindako kontsulten erantzunak, zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.
- c) Beren ekimenekoak diren lege-aurreproiektuak eta legegintza-dekretuen proiektuak, aholku-organoei irizpena eskatu bazaie.
- d) a), b) eta c) zuzenak dira.

51.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, aplikazio-eremuan aipatzen diren subjektuek hauei buruzko informazioa argitaratu beharko dute, gutxienez:

- a) Kontratu guztiak, honako datu hauek adierazita: xedea eta iraupena. Ez da nahitaezkoa izango lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa argitaratzea, ez eta zein prozeduraren bidez egin den ere.
- b) Kontratu guztiak, honako datu hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den –iragarri bada–, prozeduran parte hartu duten lizitatzailen kopurua, esleipendunaren nortasuna eta kontratuaren aldaketak.
- c) Kontratu guztiak, honako datu hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den –iragarri bada– eta prozeduran parte hartu duten lizitatzailen kopurua. Ez da nahitaezkoa izango esleipendunaren nortasuna eta kontratuaren aldaketak argitaratzea.
- d) Ez da nahitaezkoa izango kontratu guztiak argitaratzea, honako hauek adierazita: xedea, iraupena, eta lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa.

52.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, aplikazio-eremuan aipatzen diren subjektuek hauei buruzko informazioa argitaratu beharko dute, gutxienez:

- a) Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak, baina zenbatekoa, xedea edo helburua adierazi gabe.
- b) Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak, zenbatekoa, xedea edo helburua adierazita, baina onuradunak zein izan diren adierazi gabe.
- c) Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak, zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak adierazita.



- d) Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak, baina zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak adierazi gabe.

- c) Ez dute eskumenaren titulartasuna aldatzen, ez eta eskumen horretaz baliatzeko aurreikusten diren elementuak ere.
- d) Sinadura-delegatzeak aldatzen du eskumenaren titulartasuna.

124.- Xedapen orokorrak emateko eskumenak:

- a) Delegatu egin daitezke.
- b) Delegatu egin daitezke, baldin eta organo delegatzaileak ontzat ematen badu.
- c) Ezin dira inolaz ere delegatu.
- d) a) eta b) zuzenak dira.

125.- Kudeaketa-gomendioak berekin dakar:

- a) Administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko entitateen eskumeneko jarduera materialak edo teknikoak egitea.
- b) Administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko entitateen eskumeneko titulartasuna lagatzea.
- c) Sektore publikoko kontratuen legerian araututako kontratuen berezko prestazioez arduratzea.
- d) Egintza edo ebazpen juridikoak igortzea, kudeaketaren xedeko jarduerari babesa emateko.

126.- Kudeaketa-gomendioan, datu pertsonalen tratamenduaren arduradun hauxe izango da:

- a) Eskumena delegatzen duen organoa.
- b) Gomendioa jasotzen duen organoa.
- c) Bai gomendioa jasotzen duen organoa bai eskumena delegatzen duen organoa.
- d) Datuak Babesteko Espainiako Agentzia.

127.- Gaixorik daudenean, administrazio-organoetako titularrak ordeztu ahalko dira:

- a) Behin betiko.
- b) Epe mugagabea.
- c) Aldi baterako.
- d) Partzialki.



128.- 40/2015 Legearen arabera, eskuduntza-gatazkak BAKAR-BAKARRIK sor daitezke:

- a) Hainbat administratziotakoak izanik hierarkia-lotura duten organoen artean.
- b) Hainbat administratziotakoak izanik hierarkia-loturarik ez duten organoen artean.
- c) Administrazio berekoak izanik hierarkia-lotura duten organoen artean.
- d) Administrazio berekoak izanik hierarkia-loturarik ez duten organoen artean.

129.- Administrazio publikoetako kide anitzeko organoak behar bezala eratzeko, batzarrak egiteko, eztabaidak izateko eta erabakiak hartzeko:

- a) Buruak eta idazkariak –edo hala dagokionean ordezkoez– gutxienez egon beharko dute, aurrez aurre edo urrutitik.
- b) Idazkariak –edo hala dagokionean ordezkoez– eta organoko kide-kopuruaren erdiak gutxienez egon beharko dute, aurrez aurre.
- c) Buruak eta idazkariak –edo hala dagokionean ordezkoez– eta organoko kide-kopuruaren herenak gutxienez egon beharko dute, aurrez aurre.
- d) Buruak eta idazkariak –edo hala dagokionean ordezkoez– eta organoko kide-kopuruaren erdiak gutxienez egon beharko dute, aurrez aurre edo urrutitik.

130.- Estatuaren Administrazio Orokorreko kide anitzeko organoen buruaren zeregina izango da:

- a) Aktak eta organoaren erabakien ziurtagiriak ikus-onestea.
- b) Galderak eta eskariak egitea.
- c) Norberari emandako eginkizunak betetzeko behar den informazioa lortzea.
- d) Kontsulten, irizpenen eta hartutako erabakien ziurtagiriak egitea.

131.- Estatuaren Administrazio Orokorreko kide anitzeko organoen idazkariari dagokio:

- a) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea.
- b) Gaiak bideratzeko prestatzea, bilkurako aktak idaztea eta akta horien fede ematea.
- c) Eztabaidak moderatzea eta, kausa justifikaturik izanez gero, bilkurak bertan behera uztea.
- d) Ohiko bilkuretarako deialdia egitea erabakitzea eta gai-zerrenda finkatzea.

132.- Administrazioetako agintari edo langileak prozeduran esku hartzetik abstenituko dira, arrazoi hau tartean bada:

- a) Interesdunetako edozeinekin ikusiezin nabarmena izatea.
- b) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian.
- c) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea.
- d) a), b) eta c) zuzenak dira.



133.- Zer da irispide-puntu elektroniko bat, administrazio publiko baten, erakunde publiko baten edo zuzenbide publikoko entitate baten titulartasuneko, interneten bidez irispidea ematen duena argitaratutako informaziora?

- a) Web-orria.
- b) Interneteko ataria.
- c) Egoitza elektronikoa.
- d) Ziurtagiri digitala edo CI@ve.

134.- Osasun Sistema Nazionaleko erabiltzaileen datuak erregistratzeko informazio-eta komunikazio-sistemen kokapena hauxe izan beharko da:

- a) Europar Batasuneko lurraldearen barruan.
- b) Europar Batasunetik kanpoko lurraldean.
- c) Estatu Batuetan.
- d) Erresuma Batuan.

135.- 149/2007 Dekretuaren arabera, bigarren iritzi medikorako eskabidea:

- a) Baliabide telematikoetatik aurkeztu beharko da nahitaez.
- b) Administrazioaren edozein erregistro ofizialetan aurkeztu ahalko da.
- c) Osasun-zentroen edo Osasun Sailaren Pazientea-Erabiltzailea Atenditzeko Zerbitzuetan aurkeztu ahalko da.
- d) Lehen diagnostikoa igorri zuen zentroan soilik aurkeztu ahalko da.

136.- 149/2007 Dekretuaren arabera, bigarren iritzi medikoa eskatzeko eskubidea ezingo da baliatu:

- a) Asistentzia sanitario pribatuan.
- b) Aldi berean profesionala aldatzeko eskatu bada.
- c) Behin betiko diagnostiko bat igorri bada.
- d) Prozedura judizial bat izapidetzen ari bada.

137.- 149/2007 Dekretuaren arabera, bigarren iritzi medikoak lehenengoa baieztatzen badu, pazienteak:

- a) Asistentzia jatorrizko osasun-zentroan jarraitu beharko du nahitaez.
- b) Asistentzia bigarren iritzi hori eman zuen zentroan jarraitzeko aukeratu ahalko du.
- c) Eskabide gehiago egiteko eskubidea galduko du.
- d) Hirugarren balorazio bat eskatu beharko du.

138.- Nortzuek eska dezakete bigarren iritzi mediko bat, 149/2007 Dekretuaren arabera?

- a) Soilik adinez nagusi diren pazienteek.
- b) Pazienteak edo edozein profesional sanitariok.
- c) Pazienteak, bere legezko ordezkariak edo berariaz baimendutako pertsonak.



d) Soilik pazientearen senide zuzenek.

139.- Bigarren iritzi medikorako eskubidea honako hauekin lotutako prozesuetan bermatuko da, besteak beste:

- a) Gaixotasun infekzioso arruntak.
- b) Behin-behineko patologia arinak.
- c) Endekapenezko gaixotasun neurologikoak.
- d) Nahasmendu psikologiko iragankorrak.

140.- Zein da bigarren iritzi medikorako eskubidearen helburu nagusia, 149/2007 Dekretuaren arabera?

- a) Osasun-sistemak emandako lehen diagnostikoa ordezkatzeta.
- b) Lehenengo diagnostiko edo proposamen terapeutikoa egiaztatzea, erabakiak hobeto hartzeko.
- c) Osasun-langilea aldatzeko aukera bermatzea, pazienteak hala eskatzen duenean.
- d) Itxaron-zerrenda kirurgikoak murriztea.

141.- Bigarren iritzi medikoa emateko, profesional sanitarioak:

- a) Lehen diagnostikoa eman zuen zentro berekoak izan beharko dira.
- b) Sare publikoko zentro bateko langileak izan behar dira, baina ez jatorrizko zentrokoak.
- c) Pazienteak izendatuko ditu, askatasunez.
- d) Zentro pribatu itunduen parte izango dira, eskusiboki.

142.- Zein epetan hitzartu behar da bigarren iritzi medikorako hitzordua, eskabidea erregistroan sartu zenetik?

- a) Gehienez 5 egun naturaleko epean.
- b) Gehienez 10 egun baliaduneko epean.
- c) Gehienez 15 egun naturaleko epean.
- d) Gehienez hilabeteko epean.

143.- Bigarren iritzi medikoak EZ badu lehenengoa baieztatzen, pazienteak:

- a) Nahitaez jarraitu beharko du asistentzia jatorrizko osasun-zentroan jasotzen.
- b) Galdu egingo du osasun-asistentzia publikorako eskubidea.
- c) Bigarren iritzi medikoa eman zen osasun-zentroan lortu ahal izango du osasun-asistentzia.
- d) Berriz ere hasi beharko du asistentzia-prozedura osoa.

144.- Bigarren iritzi mediko bat ematea bidezkoztat jotzen EZ bada:

- a) Erabakia ahoz jakinarazi beharko zaio pazienteari.



- b) Jatorrizko zerbitzu medikoak hartu beharko du erabakia, justifikaziorik gabe.
- c) Zuzendaritza Medikoak txosten arrazoitu bat emango du.
- d) Osasun Sailak ebatzi beharko du gaia, aurretiazko txostenik gabe.

145.- Zein kasutan lortu daiteke bigarren iritzi mediko bat Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko osasun-zentroetan?

- a) Pazienteak berriaz hala eskatzen duenean.
- b) Lehenengo diagnostikoa lehen mailako arretan eman denean.
- c) Lurraldean zentro publiko eskuragarri ez dagoenean.
- d) Teknika diagnostiko eta/edo terapeutiko baten egoera bereziagatik beharrezkoa gertatzen denean, Osasun Sailaren baimenarekin.

146.- Zein unitate arduratzen dira bigarren iritzi medikoaren eskabideak izapidetzeaz, 149/2007 Dekretuaren arabera?

- a) Lehenengo diagnostikoa eman zuen zentroko zerbitzu medikoak.
- b) Osakidetzako Zuzendaritza Medikoak bakarrik.
- c) Osasun-zentroetako paziente eta erabiltzaileei arreta eskaintzeko zerbitzuak eta jatorrizko Zuzendaritza Medikoak.
- d) Osasun-zentroetako paziente eta erabiltzaileei arreta eskaintzeko zerbitzuak eta Osasun Sailaren unitateak.

147.- Osakidetzan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren arabera, protokoloa zenbatean behin berrikusiko da?

- a) Lau urtean behin.
- b) Bost urtean behin.
- c) Urtero eta, lehenengo lau urteak igarotakoan, lau urtean behin.
- d) Urtero, lehenengo lau urteetan eta, une horretatik aurrera, 2 urtean behin.

148.- Osakidetzan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren arabera, prozedura informala noiz erabiliko da?

- a) Sexu-jazarpeneko eta/edo sexuan oinarritutako jazarpeneko kasutzat jotzeko adinako izaera ez duten baina desegokiak izan daitezkeen ekintzen kasuan.
- b) Sexu-jazarpeneko eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena ez diren baina lan-inguruan ondoeza sortzen duten jokabideen kasuan.
- c) Sexu-jazarpeneko eta/edo sexuan oinarritutako jazarpeneko kasu gisa katalogatzeko bezain larriak ez diren ekintzen kasuan.
- d) Deskribatutako jarduerak ezingo dira jazarpenetzat jo, baina esku-hartze prebentiboa egin ahalko da.



149.- Osakidetzan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren arabera, Aholkularitza Konfidentzialtasunaren eginkizunetako bat da:

- a) Jazarpen-prozeduraren ondoriozko diziiplina-zehapenak ezarri eta betearaztea.
- b) Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena behin betiko konpontzea.
- c) Balizko jazarpen-egoerekin lotutako kexak eta salaketak jaso, aztertu eta izapidetzea.
- d) Langileen Zuzendaritzari langileen kudeaketaren arloan esleitutako eginkizunak bereganatzea.

150.- Osakidetzan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren arabera, Osakidetzak zainduko du lan-ingurunea horrelakoa izatea:

- a) Arriskurik gabeko lan-ingurunea izatea, eta, ondorioz, sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko egoeretatik libre egotea, mota guztietan, ziberjazarpena barne.
- b) Arriskuetatik libre dagoen lan-ingurunea izatea, eta, beraz, sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko egoerarik ez izatea, ziberjazarpena barne.
- c) Arriskurik gabeko lan-ingurunea izatea, eta, ondorioz, sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko egoeretatik libre egotea, ziberjazarpena alde batera utzita.
- d) Arriskurik gabeko lan-ingurunea izatea eta sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko egoeretatik libre egotea, edozein motatan.

151.- Osakidetzan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren arabera, Osakidetzak konpromisoa hartzen du eskubide hauek babesteko:

- a) Langileen eskubideak, diziiplina-araubidea aplikatzen dela bermatuta.
- b) Ukitutako pertsonen eskubideak, behar bezalako bermekin.
- c) Ukitutako pertsonen eskubideak, baldintza beretan.
- d) Osakidetzako langileen eskubideak, prebentzio-neurrien bidez.

152.- Osakidetzan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren arabera, protokoloa hauei aplikatuko zaie:

- a) Osakidetzako estatutupeko langile finko guztiei.
- b) Osasun-zentroetara atxikitako langile guztiei.
- c) Osakidetzari atxikitako langile guztiei, baita zuzendariei ere.
- d) Osakidetzari atxikitako langile guztiei, baita zuzendariei, prestakuntza jasotzen ari diren langileei eta kanpoko enpresei ere.

153.- Osakidetzan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren arabera, sexu-jazarpena hauxe da:

- a) Sexu-izaera duen jokabide bat behin eta berriz egitea, eta, ondorioz, lan-ingurune bortitza sortzea.



- b) Pertsonaren sexuarekin lotutako edozein jarrera sexual.
- c) Sexu-izaerako jokabide bat sortzea, ahozkoa, ahozkoa ez dena edo fisikoa, xede nahiz ondore izateagatik pertsonaren duintasunaren aurka egitea.
- d) Sexu-izaerako edozein jarduera, lan-ingurunean iraingarria izan badaiteke.

154.- Osakidetzan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren arabera, jazarpen-egoera bat jasaten duen edo ezagutzen duen edozein pertsonak:

- a) Jakinarazi ahalko du, baina soilik ordezkariak sindikala duten organoen bidez.
- b) Jakinarazi ahalko du, baina soilik Osakidetzako langile finkoa bada.
- c) Langileen Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio.
- d) Egoera hori salatzeke eskubidea izango du.

155.- Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen arabera, lege honen xedea da:

- a) Laneko osasuneko lan-baldintzak hobetu daitezkeen sustatzea.
- b) Lan-baldintzak hobetu daitezkeen sustatzea, langileen segurtasunaren eta osasunaren babes-maila igotzeko.
- c) Lan-arriskuen prebentzioaren gaineko obligazioak ezartzea.
- d) Lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak arautzea.

156.- Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen arabera, laneko segurtasun- eta osasun-neurrien kostua:

- a) Partzialki ezarri ahal izango zaie langileei.
- b) Enpresariaren eta langileen artean ordainduko da.
- c) Soldata-hobekuntzen bidez ordainaraziko da.
- d) Ezin izango zaie inola ere ezarri langileei.

157.- 31/1995 Legearen arabera, prebentzio-ekintzaren printzipioetan sartzen da:

- a) Lana pertsonarentzat moldatzea.
- b) Pertsona lanpostuari egokitzea.
- c) Arrisku larriak soilik ezabatzea.
- d) Banakako babesari garrantzi handiagoa ematea babes kolektiboari baino.

158.- Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen arabera, langileek eskubidea dute prebentzioaren arloan:

- a) Laneko segurtasun- eta osasun-arloan benetako babesa izateko.
- b) Laneko segurtasun eta osasunerako arriskuei buruzko informazioa jasotzeko.
- c) Prebentzio-arloan prestakuntza jasotzeko.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.



- 159.- Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen arabera, noiz egin beharko da lan-arriskuen ebaluazioa?**
- a) Lan-jardueraren hasieran soilik.
 - b) Lan-baldintzak aldatzen direnean edo osasunari eragindako kalteak direla bide.
 - c) Langileen ordezkariak hala eskatzen dutenean.
 - d) Soilik lan-istripu larrietan.
- 160.- Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen arabera, langileak eskubidea izango du bere jarduera geldiarazi eta lan egiten duen lekua uzteko:**
- a) Uste duenean jarduera horrek arrisku larria dakarrela bere segurtasun eta osasunerako.
 - b) Enpresariak ez badu prebentzio-prestakuntzarik eman.
 - c) Lantokian edozein gorabehera dagoenean.
 - d) Arriskuen ebaluaziorik egin ez denean.
- 161.- Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 2. artikulua arabera, lege honen aplikazio-eremuan sartzen dira:**
- a) Soilik Langileen Estatutuak araututako lan-harremanak.
 - b) Soilik administrazio publikoaren zerbitzuean dauden langileak.
 - c) Langileen Estatutuak araututako lan-harremanak eta administrazio publikoen zerbitzuean dauden langileak.
 - d) a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 162.- Osakidetzako langileen arrisku orokorrei buruzko informazio-gidaren arabera, lan-arriskua da:**
- a) Lanaldian zehar istripu bat gertatzeko probabilitatea.
 - b) Langile bati lanetik eratorritako kalteren bat gertatzeko probabilitatea.
 - c) Lan-istripu baten ondorioz (eta ez beste ezergatik) sortutako edozein kalte.
 - d) Lan-ingurunean antzemandako edozein egoera arriskutsu.
- 163.- Osakidetzako langileen arrisku orokorrei buruzko informazio-gidaren arabera, lan-istripua da:**
- a) Lanaldian zehar gertatutako edozein lesio.
 - b) Lan-inguruetik kanpo langileak gorputzean jasandako edozein kalte.
 - c) Pertsonengan osasun-galerak edo lesioak eragin ditzakeen nahi eta espero gabeko gertaera.
 - d) Lantokian gertatutako ezusteko gertaera.



164.- Osakidetzako langileen arrisku orokorreari buruzko informazio-gidaren arabera, lanaldian istripuren bat izanez gero, langileak:

- a) Goi-hurrengo arduradunari eta Prebentzioko Oinarrizko Zerbitzuari eman behar die horren berri ahalik azkarren.
- b) Prebentzioko Oinarrizko Zerbitzuari soilik eman behar dio horren berri.
- c) Zuzenean jo behar du osasun-zentrora, komunikatu gabe.
- d) Hurrengo egunean joan behar du Prebentzioko Oinarrizko Zerbitzura.

165.- Osakidetzako langileen arrisku orokorreari buruzko informazio-gidaren arabera, zamak eskuz erabiltzean, gomendagarria da:

- a) Bizkarra lerrokatzea eta ahalegina batez ere bizkarraldeko muskuluekin egitea.
- b) Bizkarra zuzen edukitzea eta belaunak tolestea zama jaso bitartean.
- c) Bizkarra zuzen edukitzea eta ahalegina gorputz-enborrarekin egitea, hankak ez tolesteko saiakera eginda.
- d) Bizkarra zuzen edukitzea eta ahalegina bizkarraren eta besoen artean banatzea, lekualdaketak murriztuz.

166.- Osakidetzako langileen arrisku orokorreari buruzko informazio-gidaren arabera, arrisku biologiko gehien duten langileak hauek dira:

- a) Osasun-zentroko langile guztiak, bereizi gabe.
- b) Osasun-zentroetan lan egiten duten administrariak.
- c) Garbiketa-lanak egiten dituzten langileak.
- d) Gaixoei asistentzia ematen dieten profesionalak, laborategiko langileak eta animaliekin lan egiten dutenak.

167.- Osakidetzako langileen arrisku orokorreari buruzko informazio-gidaren arabera, produktu kimikoak erabiltzean:

- a) Ez da komeni produktu kimikoak zuzenean usaintzea, zer diren jakiteko beharrezkoa ez bada.
- b) Produktu kimikoak ontziz aldatu ahalko dira, baldin eta ontzi berria ondo itxita badago.
- c) Inoiz ere ez usaindu produktu kimikorik, ez eta probatu ere, bere etiketa edo ohiko erabilera edozein izanda ere.
- d) Aski da produktu kimikoak ontzi itxietan gordetzea, arriskuak saihesteko.

168.- Ordenagailua erabiltzen duten lanpostuetako laneko arriskuei buruzko informazio-gidaren arabera, DIP erabiltzailea da:

- a) Benetako lan-denborari dagokionez, egunean 4 ordu edo astean 20 ordu baino gehiago egiten duen langilea.
- b) Benetako lan-denborari dagokionez, egunean 5 ordu edo astean 25 ordu baino gehiago egiten duen langilea.
- c) Benetako lan-denborari dagokionez, egunean 6 ordu edo astean 30 ordu baino gehiago egiten duen langilea.



- d) Benetako lan-denborari dagokionez, egunean 7 ordu edo astean 35 ordu baino gehiago egiten duen langilea.

169.- Ordenagailua erabiltzen duten lanpostuetako laneko arriskuei buruzko informazio-gidaren arabera, datuak ikusteko pantailak erabiltzearekin lotutako arriskueta bat da ikusmen-nekea. Zer dago horren atzean?

- a) Behartutako posturak izatea luzaroan, pantailarekin lan egin bitartean.
- b) Aldizkako atsedetik ez hartzea ordenagailuarekin etengabe lan egin bitartean.
- c) Lanpostuko argi desegokia eta pantailan distirak, islak eta itsualdiak.
- d) Sarrera-gailuak etengabe erabiltzea, hala nola teklatura eta sagua.

170.- Ordenagailua erabiltzen duten lanpostuetako laneko arriskuei buruzko informazio-gidaren arabera, ordenagailua duen lanpostuaren inguruneke baldintzetan, gomendagarria da:

- a) Pantaila leihokiko paraleloan jartzea.
- b) Lanpostuaren argi orokorra murriztea.
- c) Pantaila leihokiko perpendikularrean jartzea, itsualdiak saihesteko.
- d) Argi artifiziala soilik erabiltzea.

171.- Ordenagailua erabiltzen duten lanpostuetako laneko arriskuei buruzko informazio-gidaren arabera, gomendagarria da laneko aulkiaren altuera erregulatzea:

- a) Oinak lurrean guztiz jarri arte.
- b) Bizkar guztia bermatuta egon arte.
- c) Belaunak aldaken mailaren gainetik geratu arte.
- d) Besurrea mahai gainean jarrita 90°-ko angelua sortu arte.

172.- Ordenagailua erabiltzen duten lanpostuetako laneko arriskuei buruzko informazio-gidaren arabera, ordenagailua duen lanpostu batean pertsonak atxeratu behar badira, pantaila biratuta jarri behar da:

- a) Baina ez 35° baino gehiago.
- b) Baina ez 45° baino gehiago.
- c) Baina ez 55° baino gehiago.
- d) Baina ez 65° baino gehiago.

173.- Ordenagailua erabiltzen duten lanpostuetako laneko arriskuei buruzko informazio-gidaren arabera, ordenagailua duen lanpostuetan eragozpenik sor ez dadin muskulu eta hezurretan, jarri teklatura eta sagua:

- a) Soilik eskuak mahai gainean jarri ahal izateko moduan.
- b) Eskumuturrak eta besurreak mahai gainean modu egokian jarri ahal izateko moduan.
- c) Besoak eskegita izateko moduan.



d) Mahaiaren ertzetik ahalik eta urrunen.

174.- Lehen atentzioko lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazio-gidaren arabera, dokumentu horren xedea da:

- a) Osasunaren eremuko Arrisku Orokorren Eskuliburua ordezte.
- b) Osasun-langile guztiei arrisku orokorren berri ematea.
- c) Langileei beren lanpostuetako lan-arrisku berezien berri ematea.
- d) Bezeroaren arreta-arloko langileen betebeharren berri ematea.

175.- Lehen atentzioko lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazio-gidaren arabera, istripuetako prebentzio-neurrien artean gomendatzen da:

- a) Maiz erabiltzen diren objektuak gainazal egonkorretan jartzea, eskura.
- b) Objektuak egonkortasunez jartzea armairu, apal, beira-arasa eta horrelakoen gainean, eta behar ez dena erretiratzea.
- c) Pasoko lekuetan eguneroko jarduerarako beharrezkoak diren objektuak soilik edukitzea.
- d) Laneko materialak mantendu eta antolatzea, batez ere azkartasunaren eta funtzionaltasunaren arabera.

176.- Lehen atentzioko lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazio-gidaren arabera, entxufe eta erregeletak erabiltzean:

- a) Saihestu entxufe eta erregeletak gainkargatzea, bereziki etengabe erabiltzen direnean.
- b) Ez da gomendagarria erregeletak erabiltzea, babes-sistema osagarriak eduki ezean.
- c) Ez gainkargatu entxuferik, ez erregeletarik, eta ez erabili kable zuriturik.
- d) Entxufe anizkunak soilik kontsumo elektriko baxuko gunetara mugatuko dira.

177.- Lehen atentzioko lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazio-gidaren arabera, ekipo, instalazio edo altzarietan anomaliak edo akatsak antzemanaz gero, langileak:

- a) Berehala konpondu beharko ditu, arrisku larririk ez badago.
- b) Prebentzio Zerbitzuari jakinarazi beharko dio, baloratu dezan.
- c) Arduradunari jakinarazi beharko dio, matxura-parte baten bidez.
- d) Anomalia seinaleztatu eta ohiko jarduerarekin jarraituko du.

178.- Lehen atentzioko lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazio-gidaren arabera, Bezeroa Atenditzeko Eremuko langileei zuzendutako gomendio orokorren artean dago:

- a) Lanpostuan soilik izatea ohiko lanerako behar-beharrezkoa den materiala.
- b) Lanpostua ordenatuta izatea, aldian-aldian erabiltzen den materiala metatu ahalko den arren.



- c) Lanpostuko elementu guztiak eskura izateari lehentasuna ematea, maiztasunez erabili ez arren.
- d) Lanpostua ongi ordenatuta eta garbi mantentzea eta bertan behar dena baino ez izatea.

179.- Prebentzioko Karpeta Gorriaren arabera, istripu bat in-itinere dela ulertzen da, baldin eta, etxetik lanera edo alderantziz gertatzen denean, eta, gainera:

- a) Ibilbidea ahalik eta laburrena denean eta lan-ordutegian egiten denean.
- b) Lokomozio-baliabidea ohikoa denean eta ibilbidea normalizat jotzen denean.
- c) Istripua lantokiaren udalerrian gertatzen denean.
- d) Langileak ez badu ibilaldia eteten, justifikatutako arrazoiak medio.

180.- Prebentzioko Karpeta Gorriaren arabera, istripua, intzidentea edo erasoak jakinarazteko barne-partea:

- a) Barneko agiri bat da, eta bere helburu bakarra informazioa ematea da.
- b) Istripua jasan duen langileak soilik bete behar du.
- c) Lan-istripu, intzidente edo eraso bat deklaratzeko beharrezko erregistroa da, betiere legeak horrela onartuta dagoenean.
- d) Mutualitateak igorritako osasun-asistentziaren partearen parekoa da.

181.- Prebentzioko Karpeta Gorriaren arabera, EZ dira jakinarazpeneko barne-partearen bidez deklaratuko:

- a) Lantokiko langileek jasandako istripuak edo intzidenteak, beren larritasuna zeinahi dela ere.
- b) Lantokiko langileek jasandako istripu edo intzidente larriak.
- c) Kanpoko enpresetako edo Osakidetzak azpikontrataturako enpresetako langileek izandako istripu edo intzidente arinak.
- d) Kanpoko enpresetako edo Osakidetzak azpikontrataturako enpresetako langileek izandako istripu edo intzidente larriak.

182.- Prebentzioko Karpeta Gorriaren arabera, orratz batez edo bestelako objektu zorrotz batez sastatzean, istripua izan duen langileak hauxe egin behar du berehala:

- a) Zauria garbitu, ura eta xaboia erabiliz, eta berehala estali.
- b) Garbitu zauria ur korrontearekin igurtzi gabe, utzi odolari isurtzen 2-3 minututan, eta antiseptiko bat eman.
- c) Zauria berehala estali, odolustu ez dadin.
- d) Zuzenean larrialdietara joan, kaltetutako gunea manipulatu gabe.

183.- Prebentzioko Karpeta Gorriaren arabera, mukosetako odol edo fluido zipritzinak egonez gero, langileak hauxe egin beharko du berehala:



- a) Kaltetutako gunea lehortu, material esterila erabiliz, eta zuzenean larrialdietara joan.
- b) Xaboi antiseptikoa eman eta, ondoren, antiseptikoa kentzeko ura botatzea saihestu.
- c) Kaltetutako gunea antiseptiko kontzentratuarekin garbitu eta berehala estali.
- d) Kaltetutako gunea ur ugarirekin edo serum fisiologikoarekin garbitu hainbat minutuz.

184.- Prebentzioko Karpeta Gorriaren arabera, azaleko odol edo fluido zipriztinak egonez gero, langileak hauxe egin beharko du berehala:

- a) Kaltetutako gunea antiseptiko batekin garbitu, baina ondoren antiseptikoa kentzeko urik bota gabe.
- b) Kaltetutako gunea ur eta xaboiez garbitu, bortizki igurtzi gabe.
- c) Kaltetutako gunea berehala estali, apositu iragazgaitz bat erabiliz.
- d) Alkoholdun desinfektatzaileak erabili eta zuzenean mutualitatera joan.

185.- 149/2007 Dekretuaren arabera, bigarren iritzi medikoaren prozedura:

- a) Ofizios hasiko du Zuzendaritza Medikoak.
- b) Osasun-langileak eskatuta hasiko da.
- c) Pazienteak, haren legezko ordezkariak edo baimendutako pertsonak eskatuta hasiko da.
- d) Pazientea Atenditzeko Zerbitzuak eskatuta hasiko da.

186.- Osakidetzan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren arabera, konfidentzialtasun-printzipioak hauxe esan nahi du:

- a) Informazioa epailearen baimenarekin baino ezingo dela partekatu.
- b) Informazioa eskuragarri egongo dela inplikaturako alde guztientzat.
- c) Informazioa mugatuta egongo dela izapidetzeko behar-beharrezkotzat duten pertsonentzat.
- d) Informazioa ordezkaritza sindikala duten organoei helaraziko zaiela.

187.- Osakidetzan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren arabera, ezarritako prozedurak erabili ondoren jokabide iraingarriak errepikatzea:

- a) Ezinbesteko baldintza da jazarpena egon dadin.
- b) Protokolotik kanpoko kasu bat da.
- c) Inguruabar aringarri bat da.
- d) Inguruabar astungarri bat da.

188.- Osakidetzan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren arabera, noiz hasiko da prozedura formala?

- a) Aldeek prozedura informalean adostasunik lortzen ez dutenean.



- b) Langileak ahoz eskatzen duenean.
- c) Zigor-zantzuak daudenean.
- d) Arduradun zuzenari egokia iruditzen zaionean.

189.- Osakidetzan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren arabera, sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko prestakuntzaren xede nagusia da:

- a) Salaketen aurreko sentsibilizazioa lantzea.
- b) Jazarpen-egoeren gaineko sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzea.
- c) Diziplina-prozedura ordezkatzeko.
- d) Zuzendariei soilik informazioa ematea.

190.- 31/1995 Legearen arabera, langileen osasuna zainduko da:

- a) Beti, nahitaez.
- b) Soilik langileak eskatzen badu.
- c) Lanaren berezko arriskuen arabera.
- d) Lan-istripu baten ondoren bakarrik.

191.- 31/1995 Legearen arabera, prebentziorako eskuordeak dira:

- a) Prebentzio Zerbitzuko teknikariak.
- b) Segurtasun eta Osasuneko Batzordeko kideak.
- c) Langileen ordezkariak, prebentzioan eginkizun bereziak dituztenak.
- d) Langileen ordezkariak, enpresariak izendatuak.

192.- 31/1995 Legearen arabera, noiz planifikatu behar da prebentzio-jarduera?

- a) Lan-jarduera hasi baino lehen.
- b) Arriskuen hasierako ebaluaziotik aurrera.
- c) Soilik osasunari eragindako kalteak direla bide.
- d) Administrazio-zehapenak jarri ondoren.

193.- Prebentzioko Karpeta Gorriaren arabera, intzidentek:

- a) Bajadun lesioak eragiten ditu beti.
- b) Kalte materialak eragin ditzake soilik.
- c) Ez du lesiorik eragiten, ezta materialei edo ingurumenari kalte egiten ere.
- d) Pertsoneri lesiorik eragin ez arren, materialei edo ingurumenari kalte eragin diezaioke.



194.- 149/2007 Dekretuaren arabera, bigarren iritzi medikorako eskabidea ebaztean, kontuan hartu beharko da:

- a) Prozedura horrek lehentasuna duela beste edozein asistentzia-prozesuren aldean.
- b) Bigarren iritzia emateak eten egiten duela martxan den tratamendua.
- c) Osasun-asistentzia jatorrizko zentroan emango dela, harik eta bigarren iritzia jaso arte.
- d) Eskabideak automatikoki eragiten duela asistentzia-zentroa aldatzea.

195.- 31/1995 Legearen arabera, enpresaburuak neurriak hartu beharko ditu langileek prebentzio-arloko prestakuntza jaso dezaten:

- a) Soilik kontratua egiteko unean.
- b) Bakarrik lan-istripu bat gertatzen denean.
- c) Lan-harremanaren hasieran eta eginkizunak edo teknologiak aldatzen direnean.
- d) Langileen ordezkariak eskatuta baino ez.

196.- Osakidetzan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren arabera, prozedura informala erabiltzearen helburu nagusia hau da:

- a) Dagokion diziplina-espedientea hastea.
- b) Ustezko jokabide sexistak arin konpontzea, jazarpen bihur ez daitezen.
- c) Kasu guztietan prozedura formala ordezkatzeta.
- d) Diziplina-erantzukizunak zehaztea.

197.- Osakidetzako langileen arrisku orokorreari buruzko informazio-gidaren arabera, maila berean erorketak saihesteko oinarrizko neurria da:

- a) Pasaguneak garbi eta libre izatea.
- b) Joan-etorriko guneetatik kentzea beharrezkoak ez diren objektuak eta oztopoak.
- c) Zorura erortzen diren likidoak berehala garbitzea.
- d) a), b) eta c) zuzenak dira.

198.- Prebentzioko Karpeta Gorriaren arabera, ageriko lesiorik eragin ez duen istripu bat gertatuz gero, langileak:

- a) Berehala jakinarazi beharko du, soilik lanean baja eragiten badu.
- b) Jakinarazi egin beharko du, eta barne-partea bete.
- c) Jakinarazi egin beharko du, arduradunak beharrezkotzat jotzen badu.
- d) Jakinarazi eta erregistratu egin beharko du, soilik eraso bat da.



199.- Lehen atentzioko lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazio-gidaren arabera, Bezeroa Atenditzeko Eremuko jarrera behartuetan, gomendagarria da:

- a) Arreta ematean beti jarrera berean egotea, mugimendu errepikakorrak saihesteko.
- b) Arreta ematean azkartasunari lehentasuna ematea, jarrera zuzentzea albo batera utzita.
- c) Lanpostua langilearen ezaugarri fisikoen arabera egokitzea, aulkia eta pantaila erregulatuz.
- d) Lanpostua egokitzea, soilik pantailaren altuera egokituz, hartara eragozpenak saihesteko.

200.- Prebentzioko Karpeta Gorriaren arabera, istripu baten ondorioz arrisku biologiko baten aurrean egonez gero, langileak:

- a) Itxaron egin behar du arduradunak zer esango, ezer egin gabe.
- b) Berehalako neurriak aplikatu eta istripua jakinarazi behar du.
- c) Barne-parteak soilik beteko du.
- d) Zuzenean jo beharko du larrialdietara, jakinarazi gabe.